

EUSKARAREN HERRI HIZKEREN



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



- 86010

- 87610

- 86060

- 86130

- 86150

- 87440

- 87400

- 87410

- 87460

- 87480

- 87520

- 87580

- 88020

- 88420

- 88480

- 88610

1027. Mapa: -a + a (-a bukaera + absolutibo singularra)

GALDERA: 86010



	alábara
	al(h)abá
	al(h)ába
	alaba
	alabéa
	alabeá
	alabé
	alabía
	alabjá
	alabía
	alábje
	alábie
	alábié
	alabíe
	alabí

- Deklinabide kasu hau ("a" amaiera duten hitzen absolutibo singularra) aztertzeko erantzunetan maizen erabili den hitza "alaba" izan denez, hitz hori erabili da maparako lematizazioarako oinarri gisa. Bestelako hitzak erabili direnean ere "alaba" lema erabiliz lematizatu dira. Molde hau erabili da deklinabide osoan.

- Lematizazioa egitean arau morfonologikoak hartu dira kontuan; hots hitzaren azken bokalaren eta absolutibo singularreko markaren artean sortzen diren egokitzapenak. Azentuaren kokapena ere kontuan hartu da.

- Mapa txikia "-a" bukaera duten hitzei "-a" mugatzailea eranstean sortzen diren arau morfonologikoen arabera eraiki da, lau multzo nagusi bereiziz: "-á", "-ia/-ie/-i", "-ea/-e" eta "-ara".

Bermeo: *alaba* erantzuna baliteke testuinguruak ("nire alaba") baldintzatutako erantzuna izatea. 86030 galderan "alabiek" erantzuna jaso da.

Elgoibar: *koskia* eta *serría* erantzunak "alabía" superleman ezarri dira. Aldiz, *illéria*, *goixágia*, *trángia* eta *benánia* "alabía" superleman.

Donamaria: *botariya* ere jaso da.

Jaurrieta: *átara* erantzuna "alábara" superleman ezarri da.

Larraine: *mardá* eta *kharriká* erantzunak "alhabá" superleman ezarri dira.



1157. Mapa: -konts + arekin (kontsonante bukaera + soziatibo singularra)

GALDERA: 87400



	ollarragas
	ollarras
	ollarrarekin
	ollarraekin
	ollarraeki
	ollarraekila(n)
	ollarraikin
	ollarrainkin
	ollarreikin
	ollarraakin
	ollarrakin
	ollarraki
	ollarraken
	ollarrekin

- Erantzunak jasotzeko ondoko esaldiak erabili dira, maizen: "Los patos no andan con el gallo", "iré con el hombre que conoces", "les canards ne se promènent pas avec le coq" eta "je partirai avec l'homme que tu connais".

- Galdera honetan kontsonantez bukatzen den hitzari soziatibo singularreko atzizkia eranstea gertatzen diren bilakabide morfonologikoak bilatu dira.

- Erantzunetan gehien agertzen diren hitzak "ollar" eta "gizon" dira; lehena erabili da lematizazioan eta mapako etiketak ezartzean.

- Mapa handian gertakari morfonologikoen arabera egin da lematizazioa: "ollarraakin", "ollarrarekin", "ollarraikin" ...



1158. Mapa: -konts + ekin (kontsonante bukaera + soziatibo plurala)

GALDERA: 87410



	ollarrakas
	ollarrekin
	ollarreki
	ollarrekiñ
	ollarrakin
	ollarraki
	ollarraikin

- Erantzunak jasotzeko erabilitako esaldiak hauek dira: "Los patos no andan con los gallos", "iré con los hombres que conoces", "les canards ne se promènent pas avec les coqs" eta "je partirai avec les hommes que tu connais".

- Galdera honetan soziatibo pluraleko atzizkia kontsonantean bukatzen diren hitzei eranstean gertatzen diren bilakabide morfonologikoak aztertu dira. Erantzunetan "oilar" eta "gizon" dira gehien agertzen direnak, baina lematizazioa "oilar" hitza erabiliz burutu da.

Busturia: *batzuk esaten dabe bertan be "gisonakin" baye nik "gisonakas"...*


Hernani: *gizonekin* ere jaso den arren, jatorrizkoagotzat jo du *gizonakin* aldaera.

Santa Grazi: "-kin" ala "-ki" den galdetuz "ollarreki" edo "ollarrekin" jaso da.



1165. Mapa: -konts + tzat (kontsonante bukaera + prolatiboa)

GALDERA: 87480



	ollarr batentzat
	ollarr batetako
	ollarran
	ollarr baten
	ollarr batendako
	ollarr(an)gatik
	"- lakooan" perifrasi
	"- ela" perifrasi

- Erantzunak biltzean ondoko esaldiak erabili dira maizten: "Le tenía por gallo, pero es capón", "le he tomado por hombre", "on l'a pris pour coq, c'était un chapon", "on l'a pris pour homme".
- Galdera honetan kontsonantean bukatzen diren hitzek prolatiboko atzizkia nola biltzen duten aztertu da.
- Lematizazioan eta etiketetan "oilarr" hitza erabili da, nahiz bestelako hitzak ere agertzen diren erantzunetan.
- Ipar Euskal Herrian "izena + "bat" + atzizkia" egitura usu ageri da. Atzizkiaren erabilera sendoa ez den hainbat herritan perifrasiak ageri dira, mendeko perpaus eta guzti.
- Oro har galderetan ez da semantikazko ñabardurarik bilatu. Aldiz, Uhartan, oharmena adierazteko *ollarraindako hartia nien* ageri da, baina eginkizuna edo etorkizuna adierazteko *beexia ut ollarretako* edo *senarretako hartu* bildu dira.
- Mapa txikia atzizkiez eraiki da: -tzat, -(ta)z, -(z)ako eta perifrasiak.
- Bestelakoak: espos bezala (Eskiula), oilasko zen (Mugerre).

Mendata: *Nik gisonztzat euki ot erantzunaz gain, beste hau ere jaso da, artú ot olláskoa dala, baya kapoie isan da.*

Aramaio: *Ni ollárra salakuen nenguan ere jaso da nik ollártzat neuken da kapoie da erantzunaz gain.*

Errezil: *óllarra dalakó gehiago esaten omen da ollartzat baino.*

Hazparne: *Gizonandako arnu ut eta itzal bat zen.*

Arnegi: *Ollarr batendako artia nin eta kapoin bat zen.*

Domintxaine: *Polliit da eta ezta erraiten "senhartzat", hori leteke erran behar...*



1169. Mapa: -konts + ra (kontsonante bukaera + adlatibo singularra)

GALDERA: 87520



	sagarrera
	sagarrea
	sagarrara
	sagarrerat
	sagarreat
	sagarrat
	sagarreala
	sagarriala
	sagarila
	sagarilat
	sagarra(n)gana
	sagarrari buruz

- Erantzunak biltzeko ondoko esaldiak erabili dira maizen: “; Ya hay diferencia de la pera a la manzana!”, “mira al roble” eta “de la poire à la pomme il y a de la difference”.

- Galdera honetan kontsonantez bukatzen den hitzari adlatiboaren atzizki singularra eranstean gertatzen diren bilakabide morfonologikoak aztertu dira.

- Erantzunetan Hego Euskal Herrian gehienik “sagar” hitzaren gainean eraikitako formak biltzen dira eta Ipar Euskal Herrian “oihan” hitzaren gainean. Lematizatzean eta mapa nagusiko etiketetan “sagar” hitza erabili da.

- Zenbait lekukok dioenez, Ahetzekoak, esaterako, berdin-berdin erabiltzen da “-rat” edo “-ra”; Uztaritzen ere iduria da jokabidea.

- Mapa txikia egiteko atzizkia bakarrik hartu da kontuan: “-era”, “-ila”, “-erat”, “-ilat”.



1216. Mapa: tanto... como / autant... que / as much... as

GALDERA: 88020; ALG: 1572 ikus



	a(d)ñe / -a
	(a)aña/-ñe
	añe(t)xe
	diñe
	giñe
	gaña
	beste
	ainbeste
	anbertze
	bezain kainbertze
	bezainbeste
	bezanbat
	bezein
	lain
	ainbat
	kainbertze - nola

- Galdera honetan berdintasunezko konparazio egiturak aztertu dira. Datuak biltzeko erabili diren esaldiak hauek dira: "Tengo tantos dientes como tú / j'ai autant de dents que toi" eta "esta casa tiene tantas puertas como la de ahí / cette maison a autant de portes que celle de là".

- Lematizazioan konparazio mota honetan erabiltzen diren unitateak azaltzen dira: adina (eta aldaerak), beste, ainbeste (eta aldaerak), bezain, lain, ainbat...

- Mapa txikian lau erantzun mota nagusi bildu dira: bezain, adina, beste eta ainbat.

Etxebarria: "Añe" be bai ta "beste" be bai erabiltzen direla, alegia.

Oñati: Jateko lain.

Amezketeta: erabiliagoa da aña partikula aimbé baino.

Goizueta: Zapela añaño elñ zapladak!

Jutsi: Hik bezein hortz badiat.

Bastida: Eh, be, banu hanbeste miliun kruspet in duten bezanbat, abaatsa nintazke, etxe guzia bethia nuke.

Barkoxe: Bezanbat entzun eta -beste behar dela konfirmatu du.



1221. Mapa: mejor (adverbio) / mieux / better

GALDERA: 88070



	(h)obe oba
	(h)obeki
	(h)obeki(g)o
	obeto
	obetogo/-tuo
	ongiaio

- Erdal 'mejor / mieux' konparatiboaren euskarazko formak bilatu dira galdera honetan. Horretarako erabili diren esaldiak hauek dira: "Tu trabajas mejor que yo / tu travailles mieux que moi" eta "es mejor que vengas solo". Erantzun desberdina jaso denean lehen esaldiari dagokion forma ezarri da lehen erantzuntzat.

- Zenbait lekutan "obeto da" egitura ere ageri da (Busturia, Arrazola). Inon gertatu da adizlaguna "baino"ri itsatsirik gelditu izana (Oartzun, Alkotz, Zilbeti, Abaurregaina). Adieraz iduria den "azkarrau" (Arrueta) edo "haboo" (Zuberoan) ere bildu dira, baina ez dira erantzuntzat jo.

- Mapa txikian hiru erantzun mota nagusi bildu dira: oba, obeto eta (h)obeki.

Jutsi: "hobekiago" ez; "hobeki" aski.



1253. Mapa: sesenta / soixante / sixty

GALDERA: 88420; ALEANR: XII, 1592



	irurogei
	idurogei
	irurobei
	irurogai
	irurogi
	(h)iruo gi
	hiruetan (h)ogei
	iruetan obei
	iruetan ogai
	(h)iruetan ogoi
	hiruetan ooi
	hirutan o(ge)oi
	hiutan oi
	hiutan hogei
	hitan o(ge)i

- Galdera honetako erantzunak biltzean lekukoei 'sesenta / soixante' euskaraz nola esaten duten galdetu zitzaizen.
 - Mapa txikian zenbaki honen bi forma nagusienak agerrarazten dira: irurogei eta hiruetan hogei.



1259. Mapa: dos (pronombre numeral) / deux (pronom numéral) / two (pronoun numeral)

GALDERA: 88480; ALG: 1582



	bi
	biga
	biya
	bida
	bide
	bira

- Galdera honetako erantzunak biltzean ondoko esaldiak erabili dira: “¿Cuántos hombres han venido? Dos / Combien d’hommes sont-ils venus? Deux”, “¿Cuántos champiñones has cogido? Dos / Combien de champignons as-tu cueillis? Deux”.

- Galdera hau 88220 ‘dos / deux’ galderarekin erkatzea komeni da.



1272. Mapa: las 4:45 horas / il est 4h 45 / a quarter to five

GALDERA: 88610; ALG: 2387



	bostak laurden guti
	bost laurden guti
	bostak laurden gutxiago
	bots lauren gutxiagoak
	bostak lauren gutxiago
	bostak kar ments
	bost orenak kar bat mens
	bostak kuarto guti
	lauak eta iru kuarto
	bostak kar guti

- Galdera honetako erantzunak jasotzeko ondoko esaldia erabili da: "son las 4:45 / il est 4h 45".

- Lematizazioan ondoko irizpideak erabili dira: lehenik, ordua adierazteko zenbakia mugagabe (bost) ala pluralean den (bostak); ez dira zenbakiaren aldaerak (bostak / bortzak) kontuan izan. Bigarren, minutuak adierazteko forma (lauren, laurden, kuarto, kar, kar ments). Eta hirugarren, "gutxi" ala "gutxiago" erabiltzen den; hemen ere ez dira kontuan hartu "guti" hitzaren aldaerak (guti, gutxi, gitxi, güti...).

